



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/10/01) Hurrengo saioa: (2019/10/15)	Udazkeneko ekintzen plangintza	Urria eta Azarorako aurreikusten diren ekintzak osatu ditugu (Kontsumobide tailerra) eta jakinarazpena prestatu dugu etxeetara bidaltzeko.	Berariazko jakinarazpenak prestatu data inguratu ahala
	Herriko irteera	Los Arcos eta Kodes-era egingo den irteeraren egitaraua zehaztu da (noiz irten, zer bisitatu, non bazkaldu, bazkal ondoren zer,...) eta irteerak suposatzen duen aurrekontua egin ondoren, bakoitzari zenbat kobratuko zaion adostu da (helduak, 20€; ikasleak 12€; 10 urtez beherakoak, dohain). Etxeetara bidaltzeko jakinarazpena ere prestatu da.	
	Auzolana	Urriaren 26an egingo den auzolanaren inguruko lanak zerrendatzen hasi gara	Azpiegitura batzordean lanketarekin jarraitu



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/10/08) Hurrengo saioa: 2019/10/22	Herriko irteera	Los Arcos eta Kodes-era egingo den bidaiaren ordainketak nola egingo diren erabaki da. -Autobusa: Gabonetan bildutako dirutik (517€.) -Los Arcos-eko elizaren bisita gidatua: Gabonetan bildutako dirutik (60€.) -Bodega: Udala (720€.) -Bazkaria: autobusean bildutakoa (1.081€.)	
	Sukaldaritzako tailerra	Ostatuko Manurekin hitz egin ondoren, ikastaroa asteartetan 17:00 hasita ordu betekoak izango direla zehaztu da, gehieneko ikasle kopurua 10 pertsonakoa izango delarik. Aurreikusten diren egunak hauek dira: -Azaroak 12, 19 eta 26 -Abenduak 3 eta 10	Jakinarazpena prestatu
	Auzolana	Udazkeneko auzolanean egin beharreko lanak izendatu dira: -Alegiko konpostagunean kartelak jarri konposta ongi egin dadin -Udaletxeko ganbaran lanek irauten duten bitartean, udaletxea eskola zaharrera trasladatuko denez, elizatari txikiko eskaileratan rampa egin, irisgarritasuna bermatzeko (agian gerora ere uzteko). -Sakristi azpiko lokalean dagoen lurra atera. Ondoren masa botako da (auzolanetik kanpo). -Sakristi azpiko lokalean argia jarri. -San Lorentzoko eta Alegiako presako mahai eta bankuak jarri. -Zirkuito desberdinen seinalitika jartzen jarraitu (eta baserri izenak, eguneratu beharrekoak) -Bide berdean geratu den itxitura zaharra kentzen bukatu. -Erreka garbitu -Lorategiak txukundu	-Talde bakoitzeko arduraduna izendatu - Materialaren zerrenda osatu



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena 2019/10/09 Hurrengo saioa: (2019/10/23)	Udaletxe gaineko obra	Mirian Otamendi arkitektoak ekarri dituen proiektuaren planoen gainean aztertu dugu: eskailerak behar duen espazioa plataforma oblikua edo "salvaescaleras" delakoa jarri ahal izateko eta baita erdiko hutsune horrek goiko azalerari ematen dion erabilera dinamikoa ere: bulegoak, ikastaroak egiteko espazioa, umeentzat, pilates, liburutegi, artxibo, erakusketa-gune... Ez litzateke komunean inbertitu beharrik izango, azpian izanda. Beraz ura eraman beharrik ez dago.	Proiektua bukatu eta lizitaziora ateratzen denetik, 20 egun izango ditugu dena husteko
	Zaborren tasa igoera	Zaborren kobrantza eta gastuen artean %30eko desfasea du Udalak. Hori konpontzen joateko aurten %10 igoko da.	
	Alegiako bide berdean ura	Alegiako Batzarrean presa inguruan iturria jartzea egoki jo zenez, 15 egun barru asfaltatzen hasi aurretik, ura bertara eramateko prestatuta utziko da.. Faltza den bide zatian erretenak eta ur irteerak ere egingo dira. Asfaltatzea Orsa enpresak aurkeztua du aurrekonturik merkeena, eta berak egingo du.	